



Ricardo Ortega

Iruñea, 1956. Ekonomian lizentziatua. Lasarte-Orian bizi da. Bertako zinegotzia da Ezker Batuaren (EB) izenean. San Markosko Mankomunitateko lehendakaria izendatu berria da. Eusko Jaurlaritzako etxebizitzaren ordezkaria Gipuzkoan, EBk kudeatzen duen EAEko Etxebizitza eta Gizarte Sailaren barruan. Donostiako egoitzan bildu gara, Kontxari begira. Aurreko egunean, igandean, estropaden egunean, “Alternatibaren garapenaren alde, errausketari ez, ez Zubietan ez inon” lemapeko kontzentrazioa hizpide hasi gara solasean.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

«Erraustearekiko Olanoren konpromisoa funtsezkoa da»

Errausketaren Aurkako Plataformaren Koordinakundearen ekitaldiak jende askoren arreta erakarri zuen San Markosko Mankomunitateko lehendakari Ricardo Ortégaren hitzetan: “sinbolikoa eta koloretsua izan zen”.

EBk eta EAE-ANVk –Imanol Azpiroz lehendakariorde izaki– San Markosko mankomunitatearen gehiengoa (%53a) osatzen dute udal hauteskudeen ostean: “Gure helburua hondakinen kudeaketan era-

bili den sistemarekin haustea da. Guk ez dugu orain arteko bidea hobetu nahi, guk bestelako alternatiba daukagu, beraz, dudarik gabe, tirabirak eta negoziazio zailak izanoko dira”, adierazi digu Ortégak.

EBk eta ANVk Mankomunitatea zuzentzeko karguak hartu dituzue. Bati baino gehiagori kezka eragin dio, agian. Udaletan gure elkarlana ez da berria eta akordioa hondakinak tratatzeko alorrean gauzatu da, besterik ez.

Foru Aldundiaren iritziz Partzuergoa da zaborren kudeaketa erabakitzeko gunea Gipuzkoan. Zer da Partzuergoa? Partzuergoa aurreko legealdian, hitzarmen bitartez eta azken unean, sortu zuten elkargunea da. Erraustegia Donostian kokatuko dela dio hitzarmenak, eta bien bitartean, San Markosko zabortegira joan diren zaborrak Gipuzkoako beste mankomunitateetako zabortegietan tratatuko direla. Besteak beste, Donostiako zaborrak.

HIRUKOAREN KRISIA

“Imazen sektoreak ez du eurek uste zuten adinako pisua, antza”

[Adierazpen hauek Josu Jon Imazek politika utziko duela iragarri aurretik eginak daude]. “Hirukoa krisian ote den? EAJko dinamikak badu garrantzia handia honetan, alegia, EAJk hautatu behar duen zuzendaritza berriak. Ziur aski, Imazek ordezkatzen duen ildoak hirukoa amaitzeko unea iritsi zela aurreikusituen, baita PSE-EErekin harreman berri bat gauzatzeko unea ere. Baina, EAJn badago beste ildo bat, Egibarrek ordezkatzen duena, bake eta normalizazioa beste modu batez ikusten duena, antza denez. Nire ustez, Imazek ordezkatzen duen sektoreak ez du sektoreak berak uste zuen pisua, edo ez hain handia behintzat. Ondorioz, oraingoz, hirukoak legealdia bukatu egingo du, dudarik ez dut horretaz. Eta hurrengo legealdian ere hirukoak aukera izango du, baina neurri batean EAJko barne prozesuak norabide batean edo beste batean egiteak eragingo du”.

barik aurreikusituen. Orain aldiz, hondakinen bestelako tratamendua proposatzen dugu guk. Hori da egoera.

PSE-EEK hondakinen politikan har dezakeen jarrera nola ikusten duzu?

EAJren eta EAren jarrera errauste plantaren aldekoa da, nabarmen. PSEn, oro har, ez dute dudarik, alabaina badago errausketa sistema defendatzen ez duen sektore bat. Sektore honetan, akaso, Odon Elorza bera sar dezakegu. Azken urteotan xantaia moduko bat jasan du, izan ere, Donostiako Udalak behartuta egin zuen

horiek murriztu aldera. Cristina Narbonak [Espainiako Ingurumen ministroak] adierazi bezala, lege berri bat lantzen ari dira alor horretan. Enpresek zenbat eta ontzi aurrefabrikatu gehiago erabili, orduan eta zerga gehiago ordaindu beharko dute, horren arabera fiskalitatea arautuko dela esan du, alegia. Jakina, beti geratuko da zabor kopuru inportante bat. Birziklaje prozesuan ahalegin handia egin behar dugu, gaien bilketa funtsezkoa da horretan. Esaterako, orain arte ia ez da ezer egin materia organikoarekin. Gure zaborraren ehuneko oso inportantea da, orain arte landu den konpostajea eskasa da oso. Arlo horretan sendo sartu behar da, hainbat konpostaje planta eraiki beharko liriateke herri nahiz eskualde mailan, aldi baterako neurri bezala behintzat.

Gipuzkoan, hondakinen auzia ebazteko garaia iritsi dela dirudi. San Markos Mankomunitatean indar politikoen %53a errauste plantaren aurka izaki.

Bai, baina Gipuzkoako beste Mankomunitatean zein indar korrelazio ematen den ikusi behar da oraindik. Orain arteko kronograma edo ibilbidea oso luzea izan da, lurralde antolamendu aldetik, hirigintzaren aldetik, izapide luzeak eta konplexuak daude burutzeko oraindik ere. Adibidez, Partzuergoaren sorreraren aurkako helegitea edo errekurtsioa dago, helegitea hainbat mankomunitatek edo udalek jarria da, Lasarte-Oriako udalak, kasu. Beraz, hondakinen auzia ez da berehala erabakiko, nahiz eta horretan ari garenok azkarrago joan nahi dugun.

San Markosera zihoan zaborra beste zabortegeira eramango dela esan duzu. Nola baloratu duzue erabaki hori San Markosko zuzendaritzan?

San Markosko zabortegea ixteko erabakia aurreko legealdian hartu zen, eta hori errespetatu nahi dugu, nahitaezkoa da, zabortegea jasanezina baita. Zaborra Gipuzkoan funtzionamenduan dauden beste zabortegeietara eramateko hitzarmena indarrean dago, epea 2009an agortuko da. Erraustegia eraikitzeko prozesua berriz 2012rako kalkulaturik zegoen. Hiru urteko tarte horretarako ez zen bestelako alternati-

erraustegiaren alde. Uneon PSEk beste rol bat joka lezake, oraingoz errausketa zalantzan jarri gabe, baina gurekin bat egin lezake aurreko fasean, alegia, zaborren bilketa selektiboan, murriztapenean... Berziklatzearen aurreneko prozesuan. Modu horretara zaborra gutxiagotu liteke eta beraz, errauste planta ez dela beharrezkoa are argiago ikus liteke.

Donostiako Udalarri xantaia egin zaiola diozu...

Noski. “Erraustegia onartzen duzu edo zaborra zuek *irentsi* beharko duzue” esan zitzaion.

“Errausterik gabeko plana gauzatu behar dugu, praktikan” esan duzu berriki. Zein da zuzendaritza berriaren plana zentzu horretan?

Hasteko, orain sortzen dugun zabor kopurua nabarmen murriztu daitekeela pentsatzen dugu: erosten dugun moduarengatik, kontzientzia falta dela-eta. Zaborra eguneroko erosten dugu: janari ontziratutak, plastikoko pila erabiltzen dugu. Behar ez ditugun gaiak gehienak. Legediak hori arautu beharko luke, material

Beti geratuko da hala ere zaborra.

Noski. Prozesua ondo egin arren, beti badago materia ezin bildua, erreusa edo errefusa deitua. Materia geldo, inerte eta bizigabe hori biltegi moduko batera eraman liteke.

Zuen alternatiba gauzatzeko herritarren parte-hartzea funtsezkoa da. Nola ikusten duzu esparru hori?

Herritarrek hasieran ez dute iritzirik gai hauei buruz, arazoa larria denean



“Lan serioa dago egiteko erreziklatzean, eta ez dut esan nahi ezer egin ez denik, baina egin dena ez da nahikoa”.

EAEko ETXEBIZITZA SAILAREN ORDEZKARIA GIPUZKOAN

"Iruzur iturri guztiak ixten saiatzen ari gara"

"Etxebide egitasmoa, etxebizitza babestuen arloan egindako lan onuragarria da. Etxeak esleitzeko zozketak ondo egin dira eta salmenten kontrola eta segimendu egokia egin dugu. Etxebizitzarako araudia martxan jarri dugu, neurri oso garrantzikoak eta eraginkorrak erabiliz. Esaterako, lehen, babes ofizialeko etxeak hogeitarako kalifikatzen ziren. Orain, EBren eskutik etxeak kalifikatu ditugu betiko, espekulatzeko zirrikitu guztiak itxi egin ditugu. Lehenago bazegoen administrazioari ematen zitzaion salmentaren kasuan, tanteo-eskubidea, erosle-lehentasan modukoa, hori ez da egiten orain. Iruzur iturri guztiak ixten saiatzen ari gara. Lurzoruaren legea egin dugu, kostata, ez nahi genuen bezain aurrerakoia, baina Euskadi erreferentea da Estatuan. Bestalde, saila hartzean etxe guztiak salmentan jartzen ziren, guk alokairuko eskaintza zabaldu dugu. Udaletxetan ere kultura hori sendotzen ari gara, lehen ia egiten ez zena. Etxe hutsen arazoa zela-eta, araua ez zen betetzen, guk inspekzio plan sakona jarri dugu abian eta kasu batzuk harrapatu ditugu, baita isunak jarri ere. Orain etxebizitzaren legea gauzatzeko lanean ari gara. EB Eusko Jaurlaritzan egoteak politika sozial sendoago bat ekarri du, dudarik gabe".

kezkatzen dira nolabait. Alegia, hiritar askok ez du printzipioz iritzirik baina informazioa emanez gero sentsibilizatzen da. Esaterako, errauste planta Urnietan eraikitzea erabaki zenezan herritarrak hasi ziren informatzen errausteari buruz, errealitate hurbila denean jendea kontzientziatzen da. Aritzetako nahiz Txingudiko erraustegien kasuak lekuko. Hala, azken hauteskundeetan gaiaren garrantzia ageri izan da udal zenbaitetan.

Kontzientziatze lana funtsezkoa da, beraz.

Lan serioa dago egiteko erreziklatzearen eremuan, eta ez dut esan nahi ezer egin ez denik, baina egin dena ez da nahikoa. Agian publizitate kanpainaz gain, kontzientzia eta sentsibilizazio kanpainak egin behar-

ko lirateke ikastetxetan eta herri elkartetan. Gizarte sektore guztietan kontzientziazio hori are gehiago sakondu behar da, ez da erraza, baina jendearen parte-hartzea beharrezkoa da.

"Hiritar askok ez du printzipioz iritzirik baina informazioa emanez gero sentsibilizatzen da.

Errealitate hurbila denean jendea kontzientziatzen da"

"Erraustetari ez" zuen jarrerak sendo segituko du.

Bai, izan ere, sistema txarrena da, osasunarentzat kaltegarria oso. Ez

dago emisioen kontrola bermaturik, kontrolak egiten dira baina ez zehatzak, ez dira jarraian egiten oso garestia delako. Kudeatzaileek ez dute espero zitekeen arduraz jokatzeko, ez dago jakiterik une guztietan betetzen ote diren gehieneko emisioak edo ez. Datu bat: erraustegiaren funtzionamendua finantzatzeko zaborrak behar dira, bestela kontraesan bat sor liteke. Errauste planta birziklatzearen aurkako sistema da, planta dagoenez, jendea erlaxatu egiten da bere zereginetan, planta dagoenez zaborra hara. Frantzian esperientziak hori erakutsi du.

Zuen alternatiba gauzatzea ez da aise izango, aurreko legegaldian sinatutako hainbat hitzarmen daude indarrean.

Lan neketsua dugu egiteko, dudarik gabe. Guk PIGRUG (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Nagusia) delakoa aztertu nahi dugu lehenbizi eta negoziazioaren bidez berau egokitzea da gure asmoa.

Markel Olanok ahaldun nagusiaren konpromisoa berme ote?

Udalek eta mankomunitateak erabakitzen dutena kontuan hartuko duela esan zuen ahaldun nagusiak, bere konpromisoa funtsezkoa da guretzat noski. Markel Olanok Batzar Nagusietako inbestidura saioan esan zuen, ez nolanahi. Alegia, ahaldun nagusiak esana da, ez funtsik gabe esana, baizik eta EB-Aralarrekin negoziazioa izan zelako. Orain mankomunitatetako edota Partzuergoko ordezkariak zein erabaki hartzen diren ikusi beharko da. ■

www.laiaerretegia.com

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com